

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### OGASUN ZUZENDARITZA

##### Dirubilketa Zerbitzua

#### Ondasun higiezinak enkantean ateratzeko probidentzia eta iragarkia

Javier López de Calle Ochoa de Eribe, Arabako Foru Aldundiaren Dirubilketa Zerbitzuaren burua.

Jakinarazten dut: Arabako Foru Aldundiaren, Oioneko udaletxearen eta Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren aldeko zordunketak kitatzeko xedez, Arabako Foru Aldundiaren 2009EXP48096332 zenbakiko derrigorrezko dirubilketari loturik izapidetzen ari den premiamendu espediente beteazlearen esparruan, Ogasuneko zuzendariak ondasun higiezinak enkantean ateratzeko erabakia eta probidentzia eman zituen, eta zordunari enbargatutako ondasun higiezinak enkante publikoan besterentzeko baimena eman. Enkantea egiteko data 2024ko irailaren 10ean finkatu da, 11:30ean, Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketako lokaletan (Probintzia plaza 13, behea,-Gasteiz). Enkantea izapidetzean eta gauzatzean, Enkantea izapidetzean eta gauzatzean, Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketarako Araudi Orokorra onesten duen Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren 176., 177. eta 178. artikuluetako xedapenak bete behar dira.

Hori guztia betez, iragarki hau argitaratzen da, eta enkantean lizitatzailerik gisa parte hartu nahi dutenei honako hau jakinarazten zaie:

#### 1. Besterendu beharreko ondasun higiezinak honako hau da:

Lote bakarra.

1. Landakoa: El Calvario aurkintzako landa finka, hiru mila laurehun eta hiru metro eta berrogeita bederatzita dezimetro karratuko azalera duena. Mugak: iparraldean, 3 poligonoko 1115 lurzatia, Jesús Gastón Zabalarrena, eta 3 poligonoko 1114 lurzatia, Canuta López de Alda Berne-dorena; hegoaldean, 3 poligonoko 1127 lurzatia, Bodegas y Viñedos Palacios Duque SLrena eta 3 poligonoko 1128 lurzatia, Luis Palacios Cabredoarena; ekialdean, erreka, eta mendebaldean, Reguera. Katastroko erreferentzia: 3 poligonoko 1116 lurzatia.

Zordunaren finkaren gaineko eskubide enbargatuak: ekarpen titulu bidezko jabari osoa, Gasteizen, 2003ko apirilaren 16an, Eduardo Pobes Layunta jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren arabera, 2003ko abenduaren 3ko 1. inskripzioan jasotzen denez.

Guardiako Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, Oyon-Oiongo udalerriko 1078 liburukian, 82 liburuan, 27 folioan; 8000 zenbakiko erregistro finka. Idufir: 01002000784569.

Ez dago kargarik Arabako Foru Aldundiak bideratu duen espediente honi lotutako enbargo idatzoharren aurretik.

Enkantean gutxieneko tasatza erabiliko den balioespina: 8.168,38 euro.

2. Lizitatzailerik aski iritzi beharko diete espedientearen bildutako jabetza tituluei eta jabetza erregistratzaileak emandako jabari eta kargei buruzko ziurtagiriei. Hala, interesa duten guztiek horiek aztertu ahalko dituzte enkantearen aurreko egunera arte, derrigorrezko dirubilketan, eta ez dute beste agiri batzuk eskatzeko eskubiderik izango.

3. Besterentzekoak diren ondasunen gainean enbargatutako eskubidea arestian zehaztutakoa da eta ez dira onartuko enkante tasatik beherako posturak edo eskaintzak. Gainera, ondoz ondoko eskaintzek 500,00 euroko tarteen arabera izan beharko dute.

4. Enkante publikoan lizitatzailerik gisa parte hartu ahalko dute zuzenbidearen arabera jarduteko gaitasuna duten eta jardun hori berariaz eragozten duen legezko eragozpenik edo murrizketarik ez duten pertsona fisiko edo juridikoek, behar bezala identifikatuta.

5. Enkantean lizitatzailerik gisa parte hartu nahi dutenek nahitaezko berme gordailua eratu beharko dute mahaiaren aurrean, gutxienez, adierazitako enkante tasaren ehuneko 20koa, eta jakinarazten da gordailu hori irmo sartuko dela Foru Ogasunean, adjudikaziodunek errematearen prezioa ordaintzen ez badute, hargatik eragotzi gabe adjudikazioaren eraginkortasuna galarrasteak gordailu horren zenbatekoan eragiten dituen kalte handiagoei lotutako erantzukizunak.

6. Ondasunak adjudikatu aurreko edozein unetan etengo da enkantea, baldin eta eskuratu nahi diren zorpekoak ordaintzen badira.

7. Lizitatzailerik gutun azal itxian bidali edo aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak, iragarki hau argitaratzen den egunetik enkantea hasi baino ordu bete lehenagora arte. Eskaintza horiek gehienekoak izango dira, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean erregistratutako dira, ordua adierazita; horrez gain, lizitatzeko gordailuaren zenbatekoa jasota daukan eta Foru Aldundiaren alde egindako txeke adostuarekin batera aurkeztu beharko da. Lizitatzailerik NANA eta, hala badagokio, haren ordezkariak egiaztatzen duen eskritura publikoa edo agiria ere aurkeztu beharko dira. Dokumentu horien ordez, kopia konpultsatuak edo erkatuak aurkeztu ahalko dira.

Gutun azal itxia aurkeztu duten lizitatzailerik ordezkatutako dituzten mahaiak, eta posturak egin ditzake haien izenean eskaintzan ezarritako gehieneko muga gainditu gabe; dena den, lizitatzailerik ere parte hartu ahalko dute lizitazioan, gutun azalean ageri den postura baino handiagoa eginda.

Gutun azal itxian aurkeztu den posturik handiena ez badator bat tarteren baten zenbatekoarekin, aurreko tartearen zenbatekoaren arabera egin dela ulertuko da.

Gutun azal itxian aurkeztutako eskaintza bat baino gehiago badatoz bat posturik onenarekin, lehenengo erregistratutakoari emango zaio lehentasuna.

Gutun azal itxian eskaintza bat baino gehiago aurkezten bada, bigarren eskaintza altuenetik aurrerako posturak onartuko dira, eta beste eskaintzarik ez badago, bigarrenetik gorako tartean egin den posturik handiena izango da adjudikazioduna.

8. Errematatzaileek adjudikazio ekitaldian bertan edo hurrengo bost egunen barruan ordaindu beharko dute eraturako gordailuaren eta adjudikazioaren prezioaren arteko aldea.

9. Enkante lehen lizitazioan adjudikatu gabe geratzen bada, enkante mahaiak, komenigarritasunari buruz eztabaidatu ondoren, honako aukera hauetako bat erabaki ahalko du:

a) Ekitaldi berean, adjudikatu gabeko ondasuna eskaintzeko bigarren lizitazioa egitea. Erabakia berehala iragarriko da, eta tasa berria berdintzen duten proposamenak onartuko dira. Tasa hori lehen lizitazioaren enkante tasaren ehuneko 75ekoa izango da. Horretarako, ordu erdiko epea izango da lizitatu nahi dutenek besterentzekoa den ondasunaren enkante tasa berriaren ehuneko 20ko gordailua era dezaten; aurretik egindako gordailuek xede horretarako balioko dute. Bigarren lizitazioa lehenengoaren formalitate berekin egingo da. Adjudikatu gabe geratzen diren ondasunak Arabako Lurralde Historikoko Dirubilletako Araudi Orokorren 180. artikulua xedatzen duen zuzeneko adjudikazioaren izapidearen arabera adjudikatuko dira.

b) Ondasunak zuzenean adjudikatzeko izapideari ekitea, 180. artikulua ezarritako prozedurari jarraikiz.

10. Eskualdatzeari loturiko gastu eta zerga guztiak, eskualdatzearen gaineko notariotza gastuak barne, eta lehentasunezkoak ez diren kargen kitapenari loturikoak adjudikaziodunaren konturakoak izango dira. Jabeen erkidegoarekin izan daitezkeen zorren egoerari dagokionez, direla etxebizitzarenak, direla lokalarenak, adjudikaziodunak berariaz salbuesten du Arabako Foru Aldundia, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1996 Legearen babesean (apirilaren 6ko 8/1999 Legeak aldatu zuen lege hori), jabeen erkidegoaren zorren egoerari buruzko ziurtagiria aurkezteko betebeharretik, eta adjudikaziodunaren konturakoak izango dira ordaintzeke dauden gastuak.

11. Arabako Foru Aldundiak, Oyon-Oioneko udaletxeak eta Arabako Errioxako Ur Partzuegoak besterendu gabeko ondasunen adjudikazioa eskatzeko eskubidea izango du, Dirubilketako Araudiaren 188. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren arabera.

Oharra: hartzekodun hipotekario eta pignorazioak, kanpotarrak edo ezezagunak, halakorik balego, jakituntzat joko dira ondorio guztietarako iragarki hau dela bide, eta edukiarekin ados ez badaude, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko dute organo beraren aurrean, edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean, hilabeteko epean, iragarkia argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 19a

*Dirubilketa Zerbitzuaren burua*

*JAVIER LÓPEZ DE CALLE OCHOA DE ERIBE*